

METAFISIKAREN AMAIERA?

Eguraldi onak, eguzkitsuak, argiak, badu nire baitan eragirik. Goizaldean esnatu naiz nahieztuta baina orain, bazkaloste honetan, animoz beteta nago. Badakit sartu naizen enpresa hau ez dela erraza, gainera ez naiz idazle ona, ez dakit narra-tzen, (filosofian edertasunari baino egiazkotasunari begiratu behar zaio). Trabak eta oztopoak besterik ez ditut. Ignoratua eta isildua naiz. Baina gero eta garbiago dut nire argumentazioa falazietatik. Eta azaldu nahi dut, eta eskerrak ematen dizkiet Markinako karmelitei euren euskarazko aldizkarian leku-txo bat egiten didatelako. Segurutzan izango da disparaterik ikusten ez dutelako nire izkribuetan, batzuk hobeto bestek kaskarrago, baina bada hor antzematen zerbait interesgarria, diot nik.

Nire ikerketen arabera soilik modu bat dago filosofia lehena ondo zimentatzeko. Gaur egun nahikoa ondo frogatua dago ezen ez dagoela modurik filosofia lehena, filosofiaren muina dena, filosofiaren esistentziaren arrazoi nagusia disziplina berezia izateko, nahikoa ondo frogatua dago ezen ez dagoela modurik ezer ondorioztatzeko kosmos material honetatik haru-tzagoaz (horregatik pensatzen dut nik asmoekin dabiltzala filoso-fiako karrera kentzeko ere, positivistek zioten moduan zientifiko materialistak bihurtu badira ulertzen da erabaki hori). Soilik modu bat dago filosofia bere osotasunera itzultzeko. Eta

ez da behar demostrazio horretan hizpide dokto nahasietan ibiltzea. Nahikoa sinplea da demostrazioa. Berba askorik nik ez dut behar horretarako.

Eta nik teorizatzen dudan modu hori, berriro diot, da Jesusek egiten zituen signoen estudio logikoa. Signo horien eskema orokorra, modurik simpleenean emanda, honelakoa da: esan eta izan. Ez daki Jesusek bakarrik zer gertatuko den, Jesusek erabaki egiten du libreki zer gertatuko den. Baina soilik fijatu egingo gara honetan: Jesusek badakiela zer gertatuko den. Eta hori ezagutza a prioristikoa da, egiazko universalatasuna erakusten duena ezagutzan. Eta ezagutza universalala lortu ezina da kosmos honetan. Zientifikoek egiten dituzten indukzioak, dakitenarekin, sekula ez dira perfektuak. Soilik ezagutza universalala edukiz izan daiteke indukzio bat perfektua. Eta hori ez da gertatzen kosmos material honetan. Beraz, ezin izan daiteke Jesusen ezagutza universalala, signoetan detektatua, kosmos honetakoa, eta Jesus Bera ere ez da kosmos honetakoa. Eta Jesusen kosmoa goragokoa da, zeren bertan kosmos material honen ezagutza universalala baitago. Kosmos horretan, ikusezina dena kosmos materialean, utopia bezala ezagutzen duguna aktualitatea da. Zeruetaiko Erresuma da, Jesusen berbei jaramon egiten badiegu behintzat. Hizketa aristotelikoan kausa finala da.

Jesusen signoei buruz badut orain comentariotxo bat. Leninek zioen ezen teoriak comprobatu egiten zirela practican, bada Jesusen “teoria” (esana, berba, logoa), escripturei creditua emanez gero, izan izaten da instantean eta perfectuki. Gureak, Leninenak barne, Haren aldean non gelditzen dira?.

Eta arestian argudiatu dudana (signoen inguruko ikerketetan eman daitezkeen argumentuetan errezena da konprenitzeko) da modu bakarra metafisikaren zientzia ondo zimentatzeko. Hortik landa ez dago modurik kosmos material honetatik harutzagoaz ezer seriorik demostratzeko. Filosofiaren historia horren lekukoa da. Ondorio horretara iritsi dira denak, batez ere Kanten ikerke-

tetatik hona garatu izan diren filosofietan. Ez dago modurik ezer harutzagokoaz demostratzeko. Dagoen modu bakarrak figura historikoa den Jesus Nazaretekoa aintzat hartu behar du, eta Haren signoak estudiatu behar ditu, lan bat ez dena hain konplikatu. Doktoek asko konplikatu dezaketen arren.

Eta horrek esan nahi du ezen soilik kristauak garatzen ahal dutela euren filosofia azken bururaino, filosofia leheneraino. Kristautasunetik kanpo ez dago modurik filosofia osoro garatzeko (agian beste monoteismoetan ere, judutarrek Moises dute, musulmanak ez ditut hainbeste ezagutzen). Trabatua dago bidea filosofia lehenerakoa (pensamendu postmetafisikoan ei daude). Eta zientifismo materialista hutsera lerratzen ahal dira, European eta Estatu Batuetan bezala, ateo edo agnostiko izan daitezke, baina erlijioa egiterakoan, filosofiaren ikuspegitik begiratuta beti ere, ezin garatu ahal dute azken bururaino erlijio hori. Demonstratuta baitago ez dagoela modurik harutzagoaz ezer jakiteko. Hankamotz geratzen dira nonbait kristauen aurrean, argudio ganorazkorik gabe, zeren eman dezagun platonismoa ontzat jotzen dutela, baina aspaldi ohartuak dadue filosofia serioan dabil-tzanak ezen Platonen intuizioa ez dela, ezin dela, perfeccioaren traza ere izan arren, ezin dela izan demostrazioa.

Kristauok, batez ere san Pedroren katedrarekin bat egiten dugunok, materialistak ere bagara, besteak bezain materialistak ere, eta zientifikoak ere bagara, baina gure filosofia ez da mugatzen zientifismora (eszeptizismo klasikoaren variante bat dena), gure filosofia osatua da azken garapeneraino, eta ez da hori hizpide filosofiko berezia dugulako. Ganorazko asuntuetan denok dugu filosofia bera, baina besteak kontuan hartzen ez dutena guk (nik behintzat bai) kontuan hartzen dugu, eta Jesusek argitzen digu bidea, baita filosofian ere. Eta hori egiten du garai nahasi hauetan. Eta horregatik katolikook faroa ez dugu galtzen, kosmos material honetan ez dagoen arren. Eta gertu gaude gure fedearen arrazoiak edozeini emateko, baita filosofoei ere. Egia-ren bilatzaile zintzoak badira agian guretako egiten ditugu.

Guretako zeintzuk?. Adibidez, positivisten teoria defendatzen dutenak. Eurek diote hiru fase daudela historian, lehena mitoena, bigarrena metafisikoa eta hirugarrena zientzia materialistarena. Eta arrazoia dute, soilik erakutsi behar zaie bada-goela salbuespen bat bilakaera historiko horrena, eta salbuespena da errevelazioaren historia, signoekin lagunduta datorrena, eta bururatzen dena Jesusekin, Jesusekin eta Bere signoekin, kontzebitua izan zenetik Mariaren baitan, gizonik ezagutu ez zuena, Zeruetara igo zen arte. Agian soilik sinistuko dute testimonioei jaramon egiten dietenak, eta testimonio horiek, signoek, aintzat hartuta ere izango dira hala ere sinistuko ez dutenak, nahiz eta ondorio erlazio egiazkoa den signoetan badela zerbait sobrenaturala insinuatzen, Jesusen gloria ageri baita. Hori kenduta positivistek, esan daiteke, arrazoia dute, eta kultura guztiak eurek teorizatutako bidetik doaz materialismo zientifikora, osatzeko zerbait falta duen filosofia eszeptikora. Edo azken mende hauetan “modan” jarri den pasatutako filosofiak superatzeko (super, soberbia) teorizatutako filosofietara, zein baino absurduagoak.

Jesusek bezala inork, pertsonaia historikoetan, ez ditu halako signoak egin (ez da magia, magoak inklinatu egiten dira Jesus haurraren aurrean). Eta nik hortik ikusten dut bide bat metafisika klasikoa, Platonen kosmos inteligiblearen teoria ezin demostratuketik garatutako metafisika hanka motza osatzeko, eta berpizteko, behintzat kristauen artean, besterik ezin bada. Platonen ezagutzaren teoria osatzea diot, eta honela egiten dut hori: objektu material baten definizio universal, esentzia, da, Platonen arabera, bere forma inmutablea, eta hortik zientzia egiten ahal omen da. Nik materialismo estrikto batetik bilatzen dut ere objektu materialen bakoitzaren definizio universal, baina ezinezkoa da, materia mutablea delako, eta egiten dudan definiziorik hoberena hartzen dut objektu material horren forma inmutable bezala, eta egiten ahal dut horrela zientzia, baina ez naiz engainatzen, badakit definizioan beti hobera egin dai-

tekeela kosmos materialean, eta hortik konsideratzea zientzia materiala beti hobegarria, hau da, beti inperfektua. Kosmos inteligiblea aurkitzen dut, ez eduki dudalako intuizio bat (hori ez da demostrazioa), eta bai Jesusen signoak estudiantuz (eta demostrazioak eginez). Eta bat egiten dut, modifikazio batzuekin, Platonen ezagutzaren teoriarekin.

Nik etsaiak baditut (lehen ez nekien zirenik ere, orain, historiara begiratzean, badakit, eta gustatuko litzaidake hori kentzea (batez ere “encantatua” nabilenean) baina ezinezkoa da, soilik egin daiteke Jesusek horretaz esandakoa gogoratzea eta komentatzea, hamaika komentario ere practicatzan ahal direnak, jakina, baina ezin kendu daiteke hori falazia larrian erori gabe), baina etsaiak eduki arren ez dut ahaleginik egingo nire burua salbatzeko mundu honetan. Jesusi entzun eta aditu behar bazaio, eskriturek dioten moduan, nahiago dut nire bizia galtzea mundu honetan ez nire buruarengatik eta bai Jesusengatik. Jesusek esan zuen horretara salvatuko naizela. Eta ez mundu honetan nire burua salvatzearren ibili, hola galdu egiten dut nire bizitza. Halako zerbait esan zuen behin nire Anaiak, eta Haren gloria ikertzen dut nire bide filosofikoetan, hortik zehar kalumniatzen edo kalumniatu nauten bitartean deabruak bultzatuta, gorrotoak bultzatuta. Zeren ez baita nik aukeratu dudan bidea besteek nahi zutena niretzat, nik ikertutakoa da, libreki, eta bakarti bihurtu banaiz ere estudio hauetan, horrek dakartzan arriskuekin, tentuz nabil, eta Jesusen gloria estudiantzen dihardut zuhurtasunez (euskara izkutuan) Markinako karmelitek euren aldizkaritxoan lagatzen didaten lekua profitatuz. Ixilean nabilelako inpresioa edukitzen dut batzuetan, nire vanitatea mindua bada ere hain ignoratua suertatzen dela ikustean nire lan filosofiko hau. .

Eta pensatzen jarrita nik egin dudana da, materialismo es-trikto batetik hasita, demostratu beste kosmos goragoko baten esistentzia, Zeruetako Erresuma. San Agustinek deitzen zion, bere platonismotik, mundu inteligiblea. Hori Platonen intuizio

bat izan zen: forma inmutableen kosmosa, eta hortik posible zekusan zientzia egitea. Eta kosmos hortatik, Aristotelesek dio, forma inteligibleak (inmutableak derrigorrean, bistan dago hori) ematen zaizkio materiako objektu guztiei (mundu material formalean bizi garea esaten dut nik). Hori da kausa formalaren teorizazioa garai hartan (baina intuizio bat ez da demostrazioa, oso ona, perfectua, bada ere). Materialismo estrikto bateatik, baina, forma material bat inteligible egiten da metodo socratikoarekin, lan eginez (kausa efizientea da niretzat lana), hau da, asmatzean bere definizioan, zeina izango bailitzateke bere esentzia, eta hortik gero zientzia egiten ahal da. Baina materialismo estrikto batetik definizioan (hori zehazten) infinituraino joan daiteke, eta horregatik zientzia materiala beti da hobegarría, eta horrek esan nahi du imperfektua dela beti. Badirudi nire metafisika zimentatzeko modua, materialismotik abiatua, bateragarria dela, osatu egiten du filosofia kristau klasikoa kausa formalaren inguruko teorizazio berri batekin (nik materiara apuntatzen dut), eta kausa finalaz, Jainkoaz a priorizko demostrazio bat egiten dut (signoen izaera a prioristikoa deskubrituz), eta bide horretatik bat etortzen da agustinismoarekin eta tomismoarekin. Filosofia kristaua indartua ateratzen da horretara, batez ere gaur egun, non materialismoa nagusitua den, eta “igarotako” oro “superatua” den, bistan dago. Eta bat egiten dut nire ezagutzaren teoria Platonenarekin eta Aristotelesenarekin, zeinak platonismoa, niretzat, ordenatu egin baitzuen.

Eta materialismoa nagusitua badago, eta aristotelismoa “superatua”, tomismoa zer esanik ez, soilik nire teoriatik iritsi daiteke metafisikaren zientzia ondo zimentatzera, agustinismoa eta tomismoa idealistak ziren (idea grekeraz forma da) eta forma inmutableen kosmos goragoko bat, inteligiblea, teorizatu zuten (Platoni eta Aristotelesi jarraituz), ideien kosmosa, hortik idealismoa izatea euren filosofia, baina hori, ondo aztertzen bada ez da demostragarria, eta Kantek demostratu zuen hori ez zegoela ondo zimentatuta. Nik, Kanten terminologia hartu-

rik, ikertu egin ditut batez ere Jesusek egiten zituen signoak (aspektu bat signoena ilustrazioan eta gero, ignoratu dena), eta hortik bada insinuatzen kosmos goragoko bat, Zeruetako Erresuma hor dago. Soilik modu horretan berpiztu daiteke filosofoen artean despregiatua zegoena, eta lan polita da agustinismoa eta tomismoa bat ekartzea nire teoriarekin, nire teoriak nonbait han oxigeno berria ematen die. Orain badago demostrazioerik, ondorio erlazio egiazkorik. Eta ez bakarrik intuizio bat, oso ona, baina intuizioa, oso logikoa ere dena behintzat kontsideratzen badugu zientzia egiterakoan operatu behar dela ezinbestez termino inmutableekin (definizio unibersalekin), izan ditezen hauek beste forma inmutableen cosmos batetik ekarriak, ala, nik diodan moduan, terminoen inmutablesuna hipotesis bezala hartuz beti, hau da materialismotik abiatuz. Gaur egungo filosofo serioari, materialista dena, ez dio platonismoaren ezagutzaren teoria egia erakusten, zeren egia da helburua, baina egia exigentea da, gustatu ala ez. Eta hori edozein zientifiko serioak badaki oso ondo. Lan neketsua baita cosmos material honetan, mutable honetan, zientzia egitea, beti baitago hoberik. Hau ez da mundu sublunarra, non inmutablea den kosmosa, izarrek zirkulu perfektuak egiten zituztena eta hola. Dagoeneko ez gara lunatikoak.

Inmutablesuna cosmos material honen definizioan, hau da kosmos material honen definizio unibersala, soilik Jesusek eduki du, eta du, mundu honetatik pasatzean, eta jakintza hori ez da kosmos material honetakoa. Hamaika bider demostratu dudana moduan.

Kosmos material honen definizio unibersala Jesusek duela, Haren signoak ikertuz ikasten dela a priorizkoa dela Bere ezagutza demostratu egiten dut (Tomas Akinokoak a posteriori demostratzen zuen kontrara), eta definizio hori, unibersala da, inmutablea da, esentziala, eta hortik ere badago pasabiderik nire demostrazioetik eskolastikaren aristotelismoaren interpretazioetaraino, tomismoraino ere (Parmenidesen Izaera inmuta-

blea da). Ez dut apurtzen tomismoarekin, aktualizatu egiten dut tradizio venerable hori. Hori da behintzat nik uste dudana egiten dudala, ajuste bat.

Nonbait afirmatu daiteke gure zientzia evolucionagarria dela (gu ez garan arren “evolucio” baten ondorioa), eta paralelismoak eginez esaten ahal dugu ezen guk zientzia dugukeela infinituraino potentzian, hau da, edozein dela gure zientziaren unea beti dago une hoberik, esan nahi baita beti dela gure zientzia inperfektoa. Baina Jesusen zientzia infinituraino ere iristen da baina da, paralelismoarekin jarraituz, infinitua aktoan. Hor evoluziorik jada ez dago, inmutabletasun bat igarri egiten da hor. Eta hortik pasabidea irekita dago tomismoraino ere.

Amaitzeko artikulua hau komentatuko dut behin Jesusek apostoluei esan zien gauza bat. Ogien eta arrainen mirakulua egin ostean, non jendetza bat asetuta laga zuen, apostoluek ziharduten euren artean ekonomiaz berbetan, kezkatuta bezala, eta Jesusek esan zien: oraindik ez duzue konprenitu?, eta geroago: noiz arte eroan beharko zaituztet! (ni, horrekin, ez naiz inozoa, eta gutxiago oraindik maliziosoa, eta badakit praktikanteok obligazioa dugula hierarkia ekonomikoki mantentzeko, ezin ibil gaitezke mirarien zain, garbi dago).

Nirekin ere, errore makalekoak kometitu izan baititut nire bizitzan, aspertuta ere egongo zen sarritan Jesus (historia kliniko ederra daukat), baina amableki pensatsen dut, eta agian orain, nire izkribuekin esango du: honek piska bat ulertzen du. Pacienteia izan behar bada ere.

Egiazki ondo konprenitzen zuena da falazia gabeko Maria Jesusen ama. Azter dezagun bestela Joanen ebangelioan nola deskribatzen den Jesusek egin zuen lehen signoa. Canaango eztegu batzuetara gonbidatuak zeuden, eta ardoa gastatu zitzairen, eta Mariak jakin bezain laster Jesusengana joan zen eta esan zion ez zutela ardorik, eta Jesusek erantzun zion oraindik ez zela etorria Bere ordua, beraz..., baina Mariak ondo zekien

zeinekin zegoen, inork ez dakien moduan, eta Jesusen planen kontra ere morroiei agindu zien egiteko Jesusek zioena, eta hola gertatu zen Jesusen lehen signoa. Mariak bai zekiela zeinekin zegoen, eta oso ondo. Eta hori ikusirik diszipuluak hasi ei ziren Jesusen gloria ezagutzen.

Nire aldetik, behin nire emazte Celiñari esan niona Loiolan: ez egidazu niri kasurik egin, ni gaiztoa naiz eta, egiozu kasu Jesusi, eta hor haren irribarreak erakutsi zidan confianza gehiago hartzen zuela nirekin, artean novio ginela.

Roman Garmendia